

Guk ere plan bat behar dugu



GOTZON BARANDIARAN ARTEAGA
IDAZLEA

Jon Lopategik plan bat zuela nabar-mendu zigun Unai Iturriagak haren heriotzaren bihamunean. Laburregi esatera, galzorian zatekeen bertsolaritzaren berpizkundera erdiesteko gako estrategikoa transmisioa zela ondorioztatu eta urteak eman zituen ikastetxez ikastetxe, bertso-eskolaz bertso-eskola, plazaz plaza. Transmisioa sormena eta ezagutza txirikordatzuz landu zuen, bertsoak ikasgarri eta eginaraziz. Hala ere ahalegindu zen, nekagaitz, bere plana gauzatu asmoz, eta lortu zuen, bistan denez, gaur egun bertsolaritza baita euskal kulturaren epizentroa, gaur egungo bertsolariak idazleak, kantariak, gidoilariak, dantzariak, artista-plastikoak, aktoreak eta intelektualak baitira. Jonek zuen plana ez zen berea soilik, baina gerora, batez ere Elkartea gisa artikulatutakoan, Euskal Herri osoko bertsolari eta bertsozaleok eztabaidatu, adostu eta gauzatu dugun planak Lopategiren ibileretan du has-tapenetako bat. Nahiko zukeen Xahok, nahiko zukeen Jose Ariztimuño *Aitzolek*, nahiko zuketuen Euzko Gogoakoek, nahiko zukeen Txillardegiak, nahiko zuketuen Ez

Espazioak izan
baditugu, barbarako
kultur-etxe andana,
baina berauetan edo
sano gutxi programatzen
da edo programatzen
denaren gehiengoa
kanpoko ekoizpena da

Dok Amairukoek. Hertzainak taldearen izen bereko lehen diskoak 35 urte bete dituenaren karietara Josu Zabalarri irakurri berri diogu, orduan musikak gizar-tean eragin handia zuela eta gaur egun balioa galdu duela, besteak beste musika egun eskuraegi dagoelako eta eskuraegi ez eze, persegutatu ere egiten gaituelako, bakean ez uzteraino. Irantzu Lekuek, oster, artea jendearen eskura egotea

nahiko lukeela erantzun zion Miel. A. Elustondori astekari honetan bertan. Ez al da apasionantea? Ez, antza. Edo bai, kataloxen zein aldetik begiratzen dugun. *Arteak Ireki* plataformaren salaketarekin bat eginez, berriz ekarriko dugu eztabaidaren plazara euskal sortzaileon gabezia handienetakoa gure lanak erakusteko plaza falta dela. Espazioak izan baditugu, barbarako kultur-etxe andana, baina berauetan edo sano gutxi programatzen da edo programatzen denaren gehiengoa kanpoko ekoizpena da. Ondorioetako bat da euskaldunak ez duela behar beste espazio euskaraz eta kulturaren abarora sozializatzeko. Herrenari bidean oztopo gehiago jartze aldera, oraintsu jakin dugu EAEko Jaurlaritzak Euskal Herri osoko sortzaile eta kulturagileei eragingo liekeen dekretua inposatu nahi digula taberna eta lokal txikietako kultur eskaintzak hilean bakarrera mugatuz. Euskal kulturagintzaren erronkak zein diren antzik ere ez duen enegarren politikari profesionalaren jakinduriari esker. *Ad eternum?* Kulturagileok, guk ere plan bat beharko dugu ba! ●

blogetan!
BLOG IZARREN BILA

**Bozka ezazu
blogik gustokoena**
Otsailaren 25etik
martxoaren 24a bitarte

SARIAK

Bernat Vidal artistaren garaikurra
200 euroko diru txekoa
ARGIA kolaboratzeko aukera

azkue
FUNDATZA

KATEGORIAK Kultura / Gizartea / Zientzia / Aisia / Politika / Teknologia

blogetan.eus